

Garbiketa eguna

(body dismorphic disorder)

Ipar Alkain Kazabon



Zumaiko Udala

*enkar
txanpa*

Garbiketa eguna

(body dismorphic disorder)

Ipar Alkain Kazabon

Julene Azpeitia 30. ipuin lehiaketa

2017

2. saria

2017ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Ipar Alkain Kazabon (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Soinean kolore biziko jertse mehea eta kolore alaietako lihozko gona luzea zeramatzan, kopeta-ileari eusten zion zintaren tonalitatearekin egoki zetozenak; azpiko arrokek ere –elastiko, bularretako eta kulero argiek– ondo ematen zuten elkarrekin. Erabat konjuntatuta joateko, Eiderri bekozkoa mudatzea baizik ez zitzaion falta.

Bainugelako ispiluan zekusan irudian beste gorriune bat detektatu berria zuen, kopetan orduantxe markatu zitzaizkion bi zimur horizontalen artean. Zeraman makillaje geruza fina ez zuen aski koskortxo pittin bat bederen disimulatzeko, eta konturatu zen poto osoa xahutzeak ere ez liokeela emaitza askoz hoberik ekarriko: ile-zinta erantztea erabaki, eta orrazkera gorriunea ezkutatzeko eran berrantolatu zuen. Hiruzpalau egun izango zituen masaileko pikortarekin, aldiz, ile-errezelaren amarruaz baliatzea zeharo bideraezina zen: gezurrezko bizar bat itsastea-edo litzateke begiratuko liokeen edonork tontor zornetsu hartan ez erreparatzeko era bakarra.

Zoragarri, ostia. Baina zer dun hori? Patatei ateratzen zaien zera hori ematen din eta! Ederki hago orain ere, maja, zirkuan sartzeko moduan.

Etenik ez zuen aurpegiaren atalkako errepasoan, hantura eta gorritasun deigarrienak soilik ez, Eiderren soak askoz gutxiago nabarmentzen zirenak ere erregistratzen zituen: kiste keratinosoak, baina baita puntutxo beltzak ere; pikorta puztuak, baina baita zaldarrik ezdeusenak ere; aise hauteman zitezkeen gorriuneak, baina baita beste edonoren begientzat ikusezinak liratekeenak ere. Den-denak

behatzen zituen, parez pare zeuzkan-eta, laukizuzen formako ispiluan ikusgai: ezker soslaiari, eskuin soslaiari, kokospean, lepoan, ezpain inguruan; ia edonon zekusan zer edo zer. Beste egun batez, berriro: porrotaren konstatazioa.

Sukaldeko mahai gainean, koiperik soberan ez zuen ezerk, baina bazegoen gosea zerekin berdindu. Olo-malutez gainezka zegoen katilua areago mukurutu zen Eiderrek olo-esnea isuri eta arroz-melaza erantsi zuenean. Mahaspasa batzuk eta kanela pittin bat ere gehitu zituen; bizigarriak, osagai funtsezkoak baino. Eta *voilà*: horra hor tradizionalago bat bezain asebetegarria izateaz gain jalearen osasunari ekarpen probetxuzkoagoak egingo zizkion gosaria prest. Agian elikatzeko modua aldatu beharko lukeela konbentzitu nahi izan zuen egunean, amak zehaztu zion zeintzuk ziren otordu makrobiotikoen onurak, baina Eiderrek ez zituen guztiak buruan gorde. Zertarako, horietarik bakarria axola zitzaion-eta egiaz: jaki hauek, esan zuen amak bere mintzaldiaren erdian, pikortak ez ateratzeko ere lagungarriak omen dira. Ama, horrela bada, ados jarriko gara.

Bizpahiru *Cuore* atzeratuen artetik, hoberik ezean, *Glamour* aldizkariaren zenbaki bat hartu ondoren, Eiderrek goseti bezain antsiatsu ekin zion mauka-mauka irensteari, olo-malutak norbaitek lapurtuko zizkion beldurrez balitz bezala. Gosaldu bitartean begiratu zituen argazkietako modeloen hortzeria zuri distiratsua zen; haien azala, orbangabea eta laua eta inolako irregulartasunik gabekoa; haien gorputzen proportzio zein neurriak, susmagarriki idealak. Hainbestearino susmagarriki idealak, non Eiderrek kausitu zuen akats bakarria, ortotipografikoez gaindi, izan zen koilaratxotik paper satinaturaino ihes egindako zipriztin pareta. Arropen diseinuak, dena den, polit askoak iruditu zitzaizkion; etxepeko Karmen mertzerian ez zuten halakorik saltzen.

Konturatzerako, katiluan zegoena urdailera bidean zen jada, eta Eider harrikoa egiten hasi zen. Berak zikinduriko ontzi eta tresnak ez ezik, amak goizean goiz harraskan utzirikoak ere bazeuden. Guztiak igurztea erabaki zuen, ez presaren presaz ibiliko zen amari laguntzatxoa ematea otu zitzaiolako, baizik eta bera zelako, ohartua zen, batere presarik ez zeukana. Ikasturteari zegozkionak aurreko egunean utzi zituen kitatuak, eta goiz horretan zuen hitzordurako, hamabi eta erdietarako, oraindik geratzen zen: txorrota itxi eta eskuak trapuaz lehortu zituenean, artean ere zeregin jakinik gabeko beste hiru ordu laurden geratzen zitzaizkion galtzeko. Egongelara joan zen, hortaz. Bertako sofa zabal handi erosoan zurrun eta tente eseri zen, bizkarra bermatu gabe,

kasik sofaren ertzean. Besoak antxumatuta eta hankak gurutzatuta, azpian geratu zitzaion oina dardarka bizian zuen, doinu frenetiko bati jarraituko balio bezala. Pixka batez pantaila erraldoi itzaliari begiratzen egon eta gero, berehala piztu zuen telebista. Besoak antxumatuta eta hankak gurutzatuta, azpian geratua zitzaion oinak dardarka zirauen.

Plataforma digitaleko kanaletan barna, film klasikoa eta sukaldaritza programa eta zientziari buruzko dokumentala eta beste hainbat emankizun segundo gutxian baztertu zituen; musika-bideoak eskaintzen ari zena aukeratu zuen. Aurkezle bikotea alemaniarrez-edo mintzo zen arren, pantaila eskuinaldeko errotulua ingelesez zegoen: *HOT this week: TOP 10*. Atzera-kontuko *number six* zen *Shake that body, cutie*-ren abeslaria –Alisha, esan berri zuten?– Eiderri ezagun egiten zitzaion, baina ez zekien ziur zergatik edo zein kantu zela-eta; izan ere, ikusi zuen aurreko aldian baino gazteago zegoen, eta, oso litekeena zen, hurrengoan baino zaharrago. Eiderrek haren lehen plano miretsi zuen –nolako kutisa–, eta *smartphone*ari heldu zion. Inkontzienteki, pantaila haztatu zuen Instagrami zegokion ikonoa begietaratu eta hari birritan eman arte. Burua atzera altxatu, eta telebistan *number five* ageri zen: azal gainean tatuaje ugari zeuzkan rapeatzailearen duetoa azalpean silikona ugari zeukan *diva*ekin batera. *Joder, ezpainetan herpesa duela zirudin*. Begirada atzera jaitsi, eta, hatza ostera ere burua baino arinago, lehengusina Irantzuren kontuan sartu zen. Baina ez: oraingoan ere, eta baziren hiru aste, ez zen ausartu sarrera jakin hark han segitzen ote zuen egiaztatzerako. Begiak indarrez itxi, eta, telefonoari zeharkako bistadizoa ere ez egitearren, gailua burko batez estali zuen.

Alferrik, irudia zein hitzak berdin-berdin berrikusi baitzituen buruan. Argazki ez bereziki gogoangarri hura nolabaiteko zehaztasunez berrosa zezakeen –Irantzu eta biok besotik helduta, zutik, pose hieratikoa–, baina argazkiak erabiltzaile anonimoari iradoki zizkionak zehaztasun erabatekoz errepika zitzakeen, hitzez hitz eta karakterez karaktere: «A baiiii! Orain goatu dut ezkerreko neskaren aurpegia nun ikusidudan lenago. Hona hemen bere lehen plano bat, jeje». Eta hurrengo lerroan, azken ukitu gisa, www.telepizza.es. web orria zeukan estekatua. Eiderrek, gorri-gorri eginda, belarrondokoa jo zion bere buruari, plast!, eskua zabalik. Iruzkina hura gogoan, ez zen lehen aldia.

Mugikorra berreskuratuz, Instagrametik lehenbailehen ateratu, eta orduari begiratu zion. Hamabi eta erdietako hitzordua gero eta hurbilago zegoen, eta oinaren dardara

etenik gabea gorputz ia osora zabaldua zen. Bat-batean, atzera kontuko *number four* isildu orduko, bolumena neurrigabeki igo zen. Eiderrek ez zuen iragarkien zarata gehigarria onartu, eta telebista mututzeko botoiari eman zion; bere baitakoa itzaltzeko, aldiz, ez zeukan gailurik eskura. Hasieran agian bai eta agian ez zertu zitekeen ideia hipotetikoa besterik ez zena, pentsamendu abstraktu eta distantziatik egina, kontu aski konkretua bilakatua zitzaion dagoeneko, eta ezin zion gehiago ez ikusiarena egin. Benetan, egiatan, aurki, atzera bueltarik gabe: hiriko zabalgunean zegoen estetika zentrorra joatekoa zen. Zehazki zer eta nola egingo ote zioten pentsatze soilak, azkenean, Shakira *number two* berriaren sabel mugimenduez oso bestelako bat eragin zion.

Eider garbitu zen, eta komunetik jaiki, baina oraindik ez zegoen etxetik irteteko prest, ez bainugelako ispilu aitzinean hondarreko geldialdia egin gabe. Lehenik, aloezko lozio hidratantedun kleenexarekin kopeta, sudur zein kokotsaren soberazko distirak sikatu zituen. Kopeta gaineko ile-errezela alboratu, eta bai, zer-nolako ezustea, lehengo gorriuneak hantxe segitzen zuen; masaileko pikorta ere, beste guztien antzera, ez zen oharkabean desagertu. Soa horretan finkatu zuen, begiekin zoom moduko bat gauzatuz: aurpegia, gehiago hurbildu, masaila, gehiago hurbildu, pikorta. Gero, hurbiltzen jarraitu, harik eta pikortak aurpegiaren tamaina hartu zuen arte.

Eiderrek, amorru bizian, ispilu ondo-ondoan kokatu zuen aurpegia, hatzak masailean: pikorta leherraraztea ez, suntsitzea zen haren irrika. Hori, baina, ez zen batere burutazio ona: hamabi eta erdietan adituen eskuetan egongo zela kontuan hartuta, ekintza absurdoa zen, zentzugabea guztiz, ergelkeria hutsa. Horixe guztia pentsatu, eta hurrengo segundoan horixe bera guztia ahaztu zitzaion, zentzua pikorta gero eta handiagoak xurgatua. Ordua iritsia zela adierazten zuen mugikorraren alarmaren ozenak soilik lortu zuen Eider geldiaraztea.

Halleko ispiluan ere, azken begiratuak masailari egin zizkion. Ispiluan zekusan irudiari hatz luzea herraz erakutsi, eta argia itzali zuen. Autobusa hartzera joan zen, horren ondotik.

Urbanoaren bi eskailera mailak salto bakarrean jaitsi zituen Eiderrek, bere geralekura heldu zenean. Oinez egin aurretik une batez gelditu zen, lurreratzean belarri-zulotik

atera zitzaion entzungailua atzera ezartzeko. Era berean, lepoan traba egiten zion eskuko poltsaren uhala hobeto gurutzatu zuen soinean, betiere bularren artean pasaraziz. Nahi gabeko ondorioa, horrela bularrak gehiago nabarmentzen zitzaizkiola, Eiderrek abantailatzat zuen orain: aukeran nahiago begiraleen soa haietarantz desbideratzea, aurpegira begira ziezaioten baino.

Eiderri, berregokitze ttipiek iraun artean, markesinako iragarkia gertatu zitzaion bistaurrean. Bainujantzia zeraman emakume gazte exuberante pinpirin batek, beltzarana ilajez zein larruazalez, saltoki handien atondotik sartzeko gonbita egiten zuen, iragarki panelen erako irribarre zabalarekin. Modeloaren irudiaren gainean, afixa babesten zuen markesinaren beiran, apenas bereiz zitekeen Eiderren isla; atzetik iristen zitzaizkion eguzki izpiek, lausotu bainoago, gardendu egiten zuten haren irudia.

Dena zegokion lekuan jada, Eider norako jakina duenaren erabakitasun eta pauso azkarrez abiatu zen, oinezkoentzako kale ordu horretan jendetsuan barna. Berehala, ordea, hazpegi ezezagun andanaren artean Aintzane Marín eta Lorea Zuñigaren silueta ezagunak begiztatu zituen, hatzak zein arretak beren mugikorren pantailetan jarriak zituztela. Pausoa geldotu, eta begiradaren norabidea aldatu zuen, aurrera begiratzetik lurrera enfasiarekin begiratzera pasatuz, eroria zitzaion txanpon baten bila balego bezala. Ikastolako gelakide ohiak *autista-mode* zeudela zirudien arren, metro gutxi ziren elkarren artean, eta ez zen gertagaitza haiek ere bera ikustea. Eta arrimatu eta nora zihoan galdetuko baliote? Orduan zer? Ez zeukan koartadarik prest: zer arraio asmatu behar zuen?

Gutziz durduzatua, Eiderrek erreakzionatu zuen entzuten ari zen Lady Gagaren kantaren bolumena kale-hotsak entzunezin bihurtzeraino igoz. Musikaren soinu-burbuilan isolatua, begirada oraindik ere zoruan iltzatua, diagonalean eta ezkerralderantz mugitu zen, emeki-emeki, jiratze bat-batekoegirik egin gabe. Bere gutxi gorabeherako kalkuluek bi horien parean egon zitekeela pentsarazi ziotenean, atzealdea so labur batez zaindu zuen: ez ziren haren hurbiltasunaz ohartuak. Diagonala osatu ondotik kalez aldatua zenean, bere izena ahoskatzeke jarraitzen zuten, eta egin izan balute ere berak bederen ez zuen deus aditu. Eiderrek, hortaz, pausoaren ziurtasuna zein abiadura berreskuratu zituen. Hainbat metro aurrera egin, eta segituan eskuinera biratu zuen, oinezkoentzako kalearen paraleloa hartuz era horretan.

Itzulingurutxo eman behar izanagatik, Eider garaiz eta eragozpen berririk gabe iritsi zen estetika zentrora: lekua gertu zegoen. Portero automatikoaren botoia sakatu aurretik, arnasoska, begiratu azkarra egin zien lau puntu kardinalei, eta gauza bera eraikinaren atea zabaldu ziotenean ere. Igogailuko ispiluaren aitzinean, bakarrik igotzen ari zela baliatuz, hara joateko erabakia zentzuzkoa zela baieztatu nahi izan zuen, enegarrenez: enegarrenez, hamaika motibo ikusi zituen, aurpegi guztia desitxuratzen. Bere buruari zaplada emateko bulkada bizia sentitu bazuen ere, esku biak poltsaren uhalari helduta atxiki zituen. Etxetik kanpo, saiatzen zen bere oldarraldiei amore ez ematen.

2 zenbakidun kabinan, giro aseptiko, neutro eta profesionala sumatzen zen, zuri aratza eta krema kolorea nagusi. Mahai berontzidunean, ia hilotz bat bezain geldi ahoz gora zetzala, Eiderrek baiezkoa eman zion soin gaina toalla batez tapatzeko proposamenari, ez hoztearren. Zentroko laguntzaileak zapi bat ere ipini zion, gurasoek hurrei otorduetan nola, muturrak jertsearen lepo barrutik sartuta. Prestalana amaitu zuen Eiderri burua unetxo batez goratu zezala eskatuz, ilea behar bezala lotuko zion zinta errazago kokatze aldera; itxurari nahiz ukiari zegokionez, Eiderrek erabiltzen zituenak baino zatarragoa zen.

Emakumeak esne garbigarria aplikatu zion aurpegi osoan, eta *tissue*ak erabiliz berehala kendu. Aurpegi-masajea ematen hasi zizaion ondoren, hatz lodiekin azal gainean zirkuluak eginez. Masailak igurtzi, kopeta igurtzi, kokospea igurtzi, lepo atzealdea igurtzi, eta atzera berriz, kontu handirik gabe igurtziz; laxatu ordeztu Eiderri tenkatu egin zitzaizkion sorbaldetan ere pausatu zituen eskuak, tartetxo batez. Masajea amaitutzat emandakoan, kabinatik irten zen, botila bat ur bost litrokoarekin bueltatzeko. Edukiaren zati bat kabinaren hondoon zegoen lurrungailuan irauli, ura berotzen jartze aldera makinaren giltzari eragin, eta irakin arte itxoin beharrean zirela ohartarazi zion Eiderri, bakarrik eta egonean utzi aurretik. Orduan ere, Eiderrek mugitzeko imintziorik egin gabe jarraitu zuen; ez zitzaion atzealdean zeukan tramankulua nolakoa zen ikusteko jakin-minik sortu, adibidez.

Pixkanaka areagotuz zihoan bor-borra gorabehera, kabinan zehatz-argi aditzen ahal zen iratiaren hotsa. Eiderrek hura entzun beste erremediorik ez zuen; beste denbora-pasarik, ezta ere. Maitasun kanta bakoitzaren amaieran, ahots aurrez grabatu ezti batek sintonia Kiss FM-rena zela jakinarazten zion entzuleari, kasu honetan Eiderri.

Eta txanda zeukan esatariaren zuzeneko ahotsa mintzatzen zenero ere, gauza bera egiten zuen honek, inork ez ahazteko moduan. Eiderrek mugikorrean gordea zeukan musika-bilduma ia amaigabea faltan sumatu zuen.

Ura irakin-puntu egokira heltzerako, makinaren besotik, diseinu heterodoxoko teleskopioa- edo zirudiena, lurruna ateratzen hasia zen. Laguntzailea Eiderren alboan zegoen jada, batere berandutu gabe.

—Lurrungailuaren besoa aurpegitik ahalik eta hurbilena jarriko dizut, bai?, lurrunak poroak zabal diezazkizun. Zenbat eta hurbilago jarri, ba hobe, baina pertsona bakoitzak ez du beroa modu berean aguantatzen. Orduan, besoa hurbilduz joango naiz gutxika-gutxika. Zeuk esan behar didazu noraino, ados?

Eiderrek lurruna oso hurbiletik jasan zezakeen, edo jasan zezakeela esan zuen; lehen kolpean, iruditu zitzaion ez zela alde handirik egongo aurpegian sumatu zituen bero-bafaden eta Saharako haizearen artean. Laguntzaileak, baina, ez zion zalantza zantzurik igarri ahotsean: bezeroak adierazi, huraxe bete. Berrito alde egin aurretik, Eiderrek espero zituen bi pepino xerrak ez, tonikoz bustiriko *tissue* tolestu bana ipini zion betazal bakoitzean.

Eider burua husten saiatu zen, eta sabela mugitzen bularraldea baino gehiago, arnasa hartzean. Minutuek aurrera egin ahala, egia esatera, gero eta gertuago zegoen hori lortzetik: lurrunaren jora luze gabe ohitu zen, eta mahai berontzidunean etzanda eroso zegoen; ordura artekoa atsegintzat eta guzti onar zezakeen. Irratian gogaikarria iritzi zion balada jartzearekin bat hasi zitzaion barealdia trakesten. (*Nada valgo sin tu amor*, Juanes).

Ate lerragarritik zinetikoki sartu zenean, estetika zentroaren arduradunak lurrungailua itzali, gurpiltxoei kirrinka eginaraziz hura paretik kendu, eta Eiderren begietako *tissue*ak zakarrontzira bota zituen. Lurrunak jariarazi zizkion mukiak aintzat harturik, kleenex bat eskuratzeko eta zintz egiteko beta eman zion: ezer gehiagorako ez. Segidan, eta oraindik bezeroa agurtzeke, foku bat piztu zuen haren aurpegi umelera zuzenduz; gero, azala lehortu zion. Eiderrek dataturiko azken irudia, soberako argiak begiak itxiaz aurretik, estetizistarena izan zen: eserita, lupadun betaurreko bereziekin goitik begira, azazkalak arrosaz margotuak eta aldean kutxatxo bat *tissue* zeramala.

Fokuaren argipean, Eiderrek beti edo ia beti gordean mantentzen zituenak agerian geratuak ziren; bere aurpegia, esan nahi baita gertutik eta makillajerik gabe, aspaldiko partez bereak ez ziren begien helmenean zegoen. Eta aurpegia bezala sentitu zen: biluzik eta poroak zabalik. Estetizistak, aldiz, laneko bata zuria zeraman jantzia. Ahalmen handiko argiak eta luparen leiarrak ahalbidetzen zioten begi hutsez baino askozaz garbiago eta handiago hautematea landu beharreko eremua, eta ikusteko moduan zituen, era horretan, bestela Eiderren begiak soilik aurki zitzakeenak. Konplimentuetan astirik galdu gabe, garbiketari ekin zion, larruazaleko gantz eta zornearen ateratzeari. (*I do it for you*, Bryan Adams).

Bi hatz erakusleekin poroak banan-banan estutzeari ekin zion, pikortak zanpatzeari, zimiko egiteari; sarrerako horman zegoen diplomak zer edo zer arranditsuagoa adierazten bazuen ere, bere teknikak bazeukan burbuiladun plastikoa lehertzearen antza, azal azpiko lohia kanporarazten jolas horretan baino indar gehixeago erabilita, betiere. Bat, hatzekin estutu; bi, zikinkeria atera; hiru, *tissue* batekin zorne edota likido gardenxka edota odol arrastoak larruazal gainetik kendu; eta hurrengo poroa. Bat-bi-hiru-hurrengoa, bat-bi-hiru-hurrengoa: hori zen eritmoa. Sudurretik abiatuta.

Sudurraren aurreko aldearekin hasi zen zehazki, goitik beheranzko bidean, eta sudur puntari heldu zion hurrena; horko puntu beltzak erauzi zizkionean sentitu zituen Eiderrek lehen minantzak. Alboetara pasatu zenean, sudur-zuloak hatzekin tapatu zizkion pintzekin bezala, arnasa galaraziz. Eiderrek, ezusteko itobeharra nozituagatik, ez zion azalpenik eskatu: kexatu ere ez. Ezpainak ahal bezain diskretuki bereizi zituen, doi-doi birikei zer prozesatu emateko adina, estetizistaren erauzketak zaildu edo atzera zitzakeen ezer ez egiteko asmoa hartuta. Listua irentsi bakoitzeko, dotoreziarik gabeko onomatopeiak ateratzen zitzaizkion, baina horiek ezin zituen saihestu, saiatuagatik. (*It's my life*, Bon Jovi).

Eiderren zirkinak ez, beste zerbaitek eman zion atentzioa estetizistari; mihia klaskatu, eta geldialdia egin zuen.

—Andereño, hemengo hau zuk lehertu al zenuen?

Begiak itxita, bere baitan gotortua, une horretan apur bat kongestionatuak zituen sudur-zuloen bitartez arnasa berriro normal hartzean zentratua, kanpotik zetorkion ahots hori oso urrutikoa iruditu zitzaion Eiderri. Baita oies eta jendetasunik

gabea ere; berarekin hitz egiteko ekintza soila gustu txarreko mutur-sartzea zen. Segundo batzuen bueltan erantzun zion, beraz, ahots erlastuaz:

—E?

Estetizistak, hatz bakarrarekin, bi ukitu arin egin zizkion sudur eta masailaren artean bide erdian-edo zegoen orbainari.

—Hemen zegoen pikorta zuk lehertu al zenuen? Marka hau orain dela gutxikoa da.

—Ez dakit ba. Ez..., ez dut gogoratzen. Ez dut uste, bakarrik lehertuko zitzaidan.

—Ez da ona pikortak ukitzea eta zirikatzen ibiltzea. Zuk lehertzen badituzu normalean ez dituzu ongi aterako, sustraiak barruan jarrai dezakeelako, eta infektatu daiteke, batez ere pikorta heldugabe dagoenean.

—Ez, badakit, ez dut egiten. Oso gutxitan.

Bere erantzunen eskasaz lotsatua bezainbeste zegoen Eider, horrezkero, estetizistaren nagusikeriazko tonuaz nardatua. Baina lezioa amaitua zen, eta, estetizistak garbiketari berrekin ziolarik, berriketa gutxi. Eider bere baitan giltzaperatu zen atzera. (*My heart will go on*, Celine Dion).

Bada, ez, Eiderren dentistak ez bezala, estetizistak ez zuen min egin aurreko abisuaren kortesia sartzeko bere zerbitzuen artean. Sudurrarekikoak finitu ondotik aurpegiaren ezker aldearen lanketari ekin zionean, min-txinparten maiztasuna haziz joan zen Eiderrentzat; estetizistaren abaila ez zen horregatik txikiagotu. Zorne edota gantz ateratze bakoitzak zitzada bana zekarren orain berekin, eta aldi behin hortzak literalki estutu beharra. Zitzada arrunt bakoitzean *Ez dun deus*, eutsi pentsatu beharra, haren azazkalen zimiko bakoitzean *Tira*, ez *dun hainbesterako*, edo *Arnasa nahi adina har dezaken orain*. Zitzada bortitz zorrotzagoetan, aldiz, sentrazio fisiko biziak Eiderren ahalegin mentalak menderatzen zituen: zitzada horiei ez, horiei ezin zien ihes egin gorputza mahai gainean utzita. Estetizistak zonalde minberenetan jardun bitartean –begien bueltan, lepoaldean–, une horretako minak hartzen zuen guztia. (*Beautiful day*, U2).

Malkobideak bete zizkion zitzada bortitz horietako baten ostean, Eiderrek kabinaren ate lerragarria zabaltzen zela entzun zuen. Laguntzailea bazkaltzetik

zatorrela ondorioztatzea zegoen, arinki aditu baitzitekeen itsatsia zeraman tipula usaina.

—Zer moduz, jefa? Nondik zoaz?

Estetizistak erantzun zion erakutsiz zonalde hau, hori eta beste hura finituak zituela, eta seinalatuz lantzeke zeuden hangoa eta hemengoa. Izaki bizidun baten aurpegiaren inguruan solasteari ekin zioten bi mekanikok auto baten txasisari buruz egingo luketen moduan, eta ondoan ez balego bezala hantxe bertan zetzan eta entzumen arazorik ez zuen neska gaztea. Eiderrek, egia esan, eskertzen zion jokabide hori.

—Hau da egin diodan azkena. Kiste kaputxaduna zen, oraintxe atera diot. Ikusten, aurrena inguruko geruza nola zulatu diodan? Ba, hortik aurrera falta da. Pikortak nahiko erauzteko errazak ditu, baina larruazala sentibera du oso.

—Bai, egia da, konturatu naiz horretaz masajea egitean.

Eiderrek ate lerragarriaren hotsa entzun zuen berriro. Begiak itxita mantenduagatik, ukitu bakarra nahikoa izan zuen garbitzaile aldaketa egon zela nabaritzeko: alde handia zegoen estetizista titularren hatz fin eta hotzetatik, haren zehaztasunetik, haren erritmo bizkorretik —bat-bi-hiru-hurrengoa—, txanda hartu zion laguntzailearen jardun motel eta zalantzatira.

Laguntzaileak, estutzera zihoan puntu zehatza aurkitzeko, pare bat segundo behar zituen, bere hatz lodixka eta mozkoteak erdi arrastaka erabiliz, eta, puntua estutu ondorenean ere, hatzak ez zituen azaletik berehalakoan aldentzen, lupadun betaurrekoekin aski ez eta egiten ari zena ikusteko ukitu ere egin beharko balu bezala. Eider, jadanik lehengo abiadurara egokitua, istantean gogaitarazi zuen tik moduko horrek, eta are gehiago ernegatu zen laguntzaileak, betazpiko zaldar bat erauzi nahian, begi globoa zapaldu zionean, zeharka bada ere. (*Me cuesta tanto olvidarte, Mecano*).

Laguntzaileak, bere esplorazioetan, Eiderren masaileko konkor larukarari erreparatu zion halako batez. Alea hitzez azpimarratzekoa begitandu zitzaion.

—Ufala! Masailean oso pikorta handia duzu, e?

Hala al dinat? Benetan? Inork esan gabe konturatu al haiz?

—Eta infektatuta duzu, gainera. Bada, halakoetan arazoa ez da pikorta bera

bakarrik: halako baten inguruan ohikoa izaten da pikorta ttikiagoak eta puntu beltzak ugaritzea.

Begira, onddoen antzera. Arren! Utzi teoria eta segi lanean!!

—Orduan, inguruko horiek guztiak ere ondo garbitu behar dira, pikorta berria sortzen da bestela, edo zaharra berriz infektatzen ahal da.

Ixilduko al haiz? Emakumea didaktiko jarri dun!

—Tira, asko bultzatu beharko dut dena ateratzeko, eta mingarria izan daiteke. Min asko ematen badizut, abisatu, bai?

Orain, minak aipatzen? Orain? Garai ederrean! Utzi ostiakeriak eta zanpatu ezan behingoz!

Laguntzailearen arnasa entzungarri bihurtu zen, pikorta indar dezente eginez estutu zuen seinale; eman ziezaiokeen minari buruz ere ez zion gezurrik esan Eiderri. Baina ahalegina kamutsa suertatu zen: pikortaren inguru zornez zein odolez bustiak tissuearekin apur bat txukundurik, laguntzaileak ikusi zuen artean ere bazegoela zer erauzi. Beraz, puntu bera bigarren aldiz zapaltzeko prestatu zen, sakon arnastuz. Laguntzailearen arnaskera bazetorren zitzadaren gaztigutzat hartuta, Eiderrek ere arnasari eutsi zion, minaren zain; zitzada iritsitakoan, biok batean bota zuten hatsa. Sekuentzia errepikatu zen beharrezkoak gertatu ziren hirugarren eta are laugarren estutzeetan ere, indarka bata eta tentsioan bestea, eta arnasteak sinkronizaturik. (*It must have been love*, Roxette).

Laguntzaileak paper-zatitxo batez buxatu zuen Eiderri sortu zitzaion odol jario ttipia. Handik lasterrera, garbiketa amaitzear zegoela iragarri zion: beste atal batzuen aldean hain mingarria ere ez zen kopetari pasaldia egin, eta kitto. Eiderren buruak oraindik ez zekien lasaitua hartu ala ez, baina bere gorputz guztiz tenkatuak, bederen, modu agerikoan aldatu zuen jarrera: dagoeneko ez zirudien *rigor mortis* zeukanik.

—Ez, barkatu, kopeta baino lehen belarri ondokoa begiratu behar dizut. Zaude, jar zaitez albora begira, bestela ez dut ongi ikusten.

Baina ze ostia dion? Ez al huen bukatu behar? Utzi belarria eta pasa hadi kopetara!

Laguntzaileak hitzez soilik ez, eskua bertan ezarriz ere bultzatu zuen jiratzera Eiderren burua. Belarri atzealdeko zikinak erauzteari ekin zion, eta are gingileko zaldar

bat edo beste ere. Zonalde hartan nozituriko ziztadetan, minaren intentsitatea gradu batzuk igo zen; Eiderri oinetako hatzak uzkurto zitzaizkion.

Oihukatu zituen barne garrasietatik guztietatik, gehien-gehiena bidean galdu zen. Eiderren eztarriraino hiru kexu sor baizik ez ziren iritsi, ezpainen okertze nahiz dardara doiarekin batean. Azken ziztako bizien erruz estreinako bi malkoak erori zitzaizkiola, lepo-postura behartuan, Eiderrek ezin izan zuen normaltasun ideia atxikitzerik lortu. «Hau-egiten-ari-haiz-hik-heuk-erabakita-heure-buruarekin-hobeto-sentitzeko» mantrarekin saiatu zen egoera zuritzen, baina batez ere desohoratua izatearen halako sentipen bat gailendu zitzaion. (Ordu bietako albistegiari bide eman aurreko agurrean, Kiss FMko esatariak ostirala zela adierazi zuen, eta hori ospatzekoa zela, noski: *Ciao guztioi! Pasa asteburu on!*).

Ordaindu ostean eta joan baino lehen, estetika zentroan aholkatua zioten bizpahiru egunez gauzak patxadaz hartzeko, egonean egoteko: ez zitzaion izerditzea komeni, bestela gantza igoko zitzaion. Eiderrek, hortaz, ez zeukan zertan errudun sentitu ikasturtea bukatu ondorengo ostiral iluntze eta larunbat osoa etxetik irten gabe, areago, bere logelatik irten gabe igarotzen bazituen. Asteburu horretako itxialdia ez zuen bere apetaz egingo: hori aholku profesional bat zehatz-mehatz betetzea baino ez zen. Nolanahi den, Eiderrek ez zuen inongo larriminik, jasotako hamaika ziztakoek hura anestesiatu baliote bezala. Eginbehar guztiak egin ondoko arindua sentitzen zuelarik, orain atseden hartzea besterik ez zitzaion gelditzen, bertan gozo. Fisikoki ere nekatuta zegoen, gainera: autobusean inork begiratu ez ziezaion, oinez itzulia zen etxera. Ia ordubete ibilian.

Eiderrek aldartea hain zuen bare, non logelako lan-mahai gainean ordenagailua piztu, eta, bestela bezala, lehengusinarekin Instagrameko kontuan sartzerantz animatu baitzen. Ez zuen jakin, hala ere, lehenengoaren ondotik iruzkin berririk egon ote zen, eta, egonez gero, anonimo putakume horri kargu hartu zioten ala ez: lehengusina errukitua zitzaion, eta zorioneko sarrera ezabatua zuen honezkero. Dena den, Eiderren susmoa zen, segurantza izatetik oso gertu zegoena, ezabatu baino lehen gustura egingo zuela bere lepotik barre. Tira, afera bazterturik, jarraian *funny videos* izendaturiko erreproduktio zerrenda luzea begiratu zuen, Youtuben. Eszenaren batek – ipurdiko erretena bistara zeraman gizon lodikotearen erorketak, nagusiki– eman zion barregararik, baina berehala sumatu zuen irri egiteak, are irribarreak, traba egiten ziola,

aurpegiko gune ugari arinki minberatuak izaki. Hortik aurrera, hortaz, barrerik ez egiten ahalegindu zen.

Nahiz eta hurrengo minutuetan, pantailaren aurrean une oro, Eiderrek begiak zabalik jarraitu, imajinen metralaitze atergabea, azkenerako, inkontzienteki baizik ez zuen prozesatzen. Ikusi gabeak zituen *Grey's Anatomy* telesailaren atalak *online* begiratzera jarri zenean, argumentuari adi egon ez eta fantasiak eraikitzeari ekin zion, non zeharkako bistaz ezagutzen zituen bi mutilek Eiderren buruan soilik existitzen zen Eiderren irudia beren desiren helburutzat hartzen baitzuten. Ez zuen astirik izan pasadizo naif samarrari ñabardura askorik eransteke, atearen bestaldetik, inpentsan, dei bat entzun zelako. Ez bi mutilena, amarena baizik.

Amak ez zekien alabaren logelako atea kisketarekin itxia zegoen ala ez (bai), baina ez zen proba egitera ere ausartu, zekiena zelako alabarenean baimenik gabe barneratzeak zein ondorio zituen. Horiek saihesteko, beraz, belarria atean bermatu, eta berriro deitu zion. Bigarren ate-jotzearen ostean bai, iritsi zitzaion bere ahotsa:

—Zer?

—Kariño, ez al duzu ezer afaldu behar?

—Berandu bazkaldu dut, oraindik ez naiz gose.

—Bederatziak dira-eta! Afaldu beharko duzu, neska.

—Tripako minez nago, ama.

—Tripako minez?

—Bai! Pasatzen zaidanean hartuko dut zeozer.

—Bale, baina ez lotara joan ezer jan gabe, mesedez.

—Ados, ama!

—Kariño, orain dutxatu eta ateratzera noa. Esan nizun afaltzeko geratu nintzela, ezta?

—Bai, esan zenidan. Ondo pasa.

Amak etxeko atearen sarrailari bi buelta ematen zizkiola argi entzun zuen arren, Eider ez zen bere ezkutalekutik irten igogailua jaisten ari zela aditu arte. Oraindik ez zen fio: belarriak luze-luze eginda, etxebizitzako gela guztiak laster batean orraztu zituen,

badaezpada. Baina bai, azkenik libre zen platerkada bat *seitán* gari sarrazenoarekin berotu, erretiluan pausatu, eta, urez eta zekale-ogiaz lagunduta, telebista aurrean irensteko, inork aurpegira begiratzeko arriskurik gabe. Gosea berdindurik, askatasuna baliatzen jarraitu zuen bera ere dutxatzeko, bainugelako atea zabalik eta guzti utzita; ur turrustak aurpegia zuzenean jo zionean, orduan ere min pixka bat hartu zuen. Gorputza lehortu eta gero, hurrengo bi egunetan aplikatzeko saldu zioten maska lasaigarria aurpegiko azalean hedatu zuen.

Ordu erdia iragan ondoren, komuneko ispiluan atzera, Eiderren begi gorrituek maskara horrezkero lehortu pitzatzen hasiaren zuriarekin kontrastatzen zuten. Maskararen arrasto guzti-guztiak, emeki eta tentu handiz, ur epelarekin bustiriko belaki batez erretiratu zituenean, garbiketa osteko lehen azterketa arretatsua eskaini zion aurpegi biluziari. Estetika zentroan esana zioten denbora eman behar zitzaiola azalari onera egin zezan, eta ez hartzeko serioegi lehenengo egunean ispiluan ikusten zuena, guztiz behin-behinekoa zen neurrian. Eiderrek ulertu zuen gomendioaren zergatia, konturatu baitzen, hara non, garbiketa ostean garbiketa aurretik baino itxura kaskarragoa zeukala. Lehenago pikorta handiak egondako lekuetan, han-hemenka, orban odolkara zapalak ageri ziren orain; kopeta, sudur, masail edota lepo zatiek gorri eta ubelaren arteko kolorea zuten, ubelxeagoa laguntzaileak landuriko zonaldeetan; gune bakan batzuk, betzuloetan batik bat, apur bat hanpatuta zituen, boxeolari hartzaile baten gisara.

Nola deitzen zunan neska hura?... Laila Ali! Laila Ali bihurtu haiz!

Eiderrek, arrangurarik erakutsi gabe, irribarre egingo ziokeen bere ateraldiari, horrela minik hartuko ez balu. Hantxe bertan, begien bistan zeukan berea ez zela konponbide samurrekoa, baina, aldi berean, hantxe zekusan ere aurre egina ziola arazoari, eta nola. Edonork bere gain hartuko ez lukeen ahalegina zela iruditzen zitzaion, baina bera bai, bera gai izan zela.

—Nik merezi baitut! —ahoskatu zuen ispilu aitzinean, teatralki, modelo baten posea antzeratuz.

Aldarteari eutsiz baina lo atzeratuarekin, Eider ez zen askoz geroago oheratu. Gau-mahaiko argia itzali eta begiak itxi ondorenean, baina, irudikatu gabe jarraitzen zuen berak zer merezi ote zuen zehazki. Eiderren larruazpiko guruinak, beren aldetik, prest ziren pikorta berriak elika litzakeen materia atzera berriz ponpatzeko.